

High on This World



(arratoia)

Etxean sartu haiz. Atea itxi duk. Zikinkeria eta kiratsa zeriok hire munduari. Haltzari hondatu, pareta zikin eta miseria inguruan dituala ikusi duanean, lipar batez halako sentimendu hitsak etorri zaizkik burura. Zutik gelditu haiz, sarreraren erdian. Bertatik ikus eta mires dezakek eraiki duan mundu zogararria. Kata, kata hutsa sentitzen haiz.

(zaborra besterik ez nauk)

Pentsakizun hau burutik alden du nahian edo, lehentxoago supermerkatuan erosi dituan janariak apaletan gordetzeari ekin diok. Sukaldea zikina duk, trastez betea, inoiz garbituko ez dituan ontziek gainez egiten diate. Garai batean zuria izan bide zen, orain grisaren tristura garratza duk bere jabe. Bapatean, zoko batean arratoi bat ikusi duk, baina ez dakik zergatik, ez duk nazka edo hura hiltzeko nahi itsua sentitu. Baina bere bakardadea hautematen huela iruditu zaik. Hurbilekotzat jotzen dituk bere bizia eta hirea: beti hondakinetatik jalgi eta inork maite ez dituen izaki ziztrinak.

Goragalea, goragalea sentitu duk eta animalari begi lausotuz so egin diok. Hire bizitzaren zati honetan guztiz bakarrik sentitzen haiz, zaborra, eta arratoiak, arratoi eta zaborra, beste gogaiderik gabe.

Hire bakardadea uki zezakeat, zerbait fisikoa bailitzan. Dentsoa duk, astuna eta hotza. Mila ustezko jostorrazekin ziztatzen dik garuna, hustasunez bonbardeatsen hire izatea. Hire beginiek aspaldi galdu ziaten bere ditzira, amets egiten ez duenari amesle airea eman ez. Ez duk beti horrela izan. Halako malenkonia atsegin batez gogoratzen dituk gazte hintzeneko gertaerak. Dena erraza huan orduan. Gauzak okertzen hasi ziren unea gogorarazten saiatzen haiz. Hire oroitzapen erdoilduei birak eta birak ematen dizkiek.

(Olentzaro)

Bai, Olentzaro gau bat izan huan. Ez hituan zazpi urte baino gehiago izango, eta euskal ikazkin tripontzi hura hire heroitzat heukan.

Bere bisitaren zain, ezin hinduen loak hartu, eta jangelan gordetzeko erabakia hartu huan, Olentzero berta bertatik ikusteko. Etxean zehar pauso batzuk entzun hituanean, pozez leheretzeko zorian hengoen. Hire bihotzarekin sinkronia osoz, gero eta hurbilago sentitzen huen ikazkin begigorriaren presentzia. Jangelako atea ireki zenean, hire ama fardelez kargatua ikusi huan, hire ametsak, hire haur inutzentzia guzia pitzatu eta milaka pusketetan jauzi huan. Hura umearen negarra! Bai aitak, bai amak kontsolatu nahi hinduten, baina hik gorroto hituan, gezur batean sinisterazi ziatelako eta hire buruari solemneki ez huela inorengan konfiatuko zin egin hion.

(Ez diat inorengan konfiatuko)

Telefonoaren hotsak berriz ere mundu errealerak ekarri hau.

(Berdin ziok, ez dit erantzungo)

Telefonoa asmakuntza sorgindu eta madarikatutzat jotzen duk. Beti izan dituk gorroto eskolako antzinako lagunen telefono deiak; kairo, zer berri? Zaharra berri. Formalismo tipikoaz haraindi, hutsak, faltsuak, benetako ineteresgabeak. Hobe zitzaiake inor hiretz oroituko ez balitz.

Baina, pentsatu duk, noizbait benetan oroitu al dituk, ba? Inor interesatu al duk benetaz hire bizitzaz? Norbaitentzat inoiz ez ikustea gustatuko litzaiokeen bizkarroi bat baino gehiago al nauk?

Bitartean, telefonoak txilin monotonoz adierazten dik bere presentzia.

(Aparailu madarikatua!)

Hurbildu hatzio eta, une batez, deseskegi eta normaltasunez hitzegitea pasa zaik burutik. Baina ez, gezurrezko interesa edo, agian, kupida erakutsi nahi duen ahotsen bat izango duk, eta ez hago hori jasateko prest. Gorroto itsumustu bat hiretz jabetu duk; gorrotoa muniari, gorrotoa gizarteari, gorrotoa hire arima eta gorputza kaiolatzen dizkiaten horma ziki-

nei. Eta tenkada batez telefonoaren kablea eten duk. Egina zegok! Zutik gelditu haiz egongelaren izkina batetan, aparailua eskubiko eskuan eta kablea ezkerrekoan. Lipar batez boteretsu sentitu haiz, deabru, irribarre ironiko bat aurpegian marraztua.

Baina egin duanaren kontzientzia hartu duanean, hire astakeriaz konturatu haizenean, sukaldean ikusitako arratoiak ere ez duela horrelako bultzada basatirik izango konturatu haiz. Hi eta arratoiaren arteko gonbaraketa mentalak min eman dik.

(Animalia nauk, animalia!)

Isiltasunez inguratua hago. Isiltasunak, bakardadea ekarri dik gogora; bakardadeak saminak; saminak arbendol zaporea ahora, burrunba belarrietara, malkoa begietara. Gelako izkinean kuzkurtu haiz eta negarrari eman diok, negar isil eta sentitua. Olentzero gezur hutsa dela jakin duen umearen malkoak dituk, masailetatik behera jaisten zaizkianak.

Erabat lur jota sentitzen haiz, hire bizitza itzulerarik gabeko puntu batetara ailegatu baidituzan. Burua altxatu duk, eta ingurura begiratu, kontsolatuko hauen zerbaiten bila. Hutsa eta hoztasuna baizik ez duk pairatu hau egitean. Etzegok alaitasun izpirik hire inguruan. Bizipoz egarri bahengo bezala, zutitu eta leihotik kalera begiratu duk. Neonezko argiak ikusi dituk urrutian, kotxeen zarata entzun, baina hire auzategiak aspaldi gizatasuna galdu zuela hauteman duk.

Musika pixka bat jarri duk, hire inguruko isiltasuna hausteagatik. Baina ez diek inongo jaramonik egiten Mark Knopfleren melodiei. Utzia sentitzen haiz, abandonatua, jasan ezinezko kate batek estutzen dik eztarria, ito, ito egiten hau.

(Amaitu da)

Komunera joan haiz. Botikina ireki eta valium kaxa hartu duk, ahalik eta pilula gehien irentsiz. Ondoren, egongelako sofán etzan haiz, betiko loaren zain. Ez, ez haiz hire oroitzapen eta bakardadearen katea hausteko gai izan, eta zer?

piskanaka-piskanaka loak hartzen hau. Hire aurretik, banan-banan pasatzen dituk inoiz maite izan dituan pertsona guztiak, eta ez diek inongo arregararik. Orain bai, stereotik datorkian melodian zentratzen haiz.

«And the big wheel will keep on turning neon burning up above and I'm just high on this world.»

Bai. Gurpil handiak birak ematen jarraituko dik, baina hi gabe. Eta, nik, nik berotasuna sentitzen diat hire bihotzean, irribarre zabal bat ikusten hire aurpegian. ■

